

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Ez dugu izango zuzeneko harremanik bezeroarekin, aplikazio honen oinarria autozerbitzua delako. Bezeroaren arreta guk egingo dugu, hau da, bezeroak galderarik edo arazorik edukiko balu guk konpondu edo lagunduko genioke. Hau errazteko aplikazioan "chat" bat egongo da han idazteko, hau nahikoa ez balitz gure gmail-a edo enpresaren telefono zenbakia erraztuko zaie bezeroei.

Bezeroak erakartzeko publizitatea egingo dugu, sare sozialetan adibidez: Instagram eta Facebook. Ditugun bezeroak mantentzeko puntu-sistema bat ezarriko dugu, 10€-ko erosketa bakoitzarengatik puntu bat emango da, puntu hauek gordeko dira aplikazioan eta hainbat produktu eskuratu ahalko dute puntuekin.